

Udazkeneko alegia

Irazabalbeitia Fernandez, Inaki
ELEKA Ingeriaritza Linguistikoa

Esperimentu labur bat egitea proposatzen dizut. Ireki, mesedez, zure web nabigatzailea, eta jo gogokoen duzun Internet-bilatzailearen orri nagusira. Tekleatu *energia* eta bilatzeko esan. Zer emaitza eman dizkizu? Milioika arrapostu, ezta? Nolakoak, ordea?

GOOGLE AUKERATU BADUZU, HAUEK IZANGO DIRA, HURRENEZ HURREN, LAU AURRENAK: EVEren web gune korporatiboa gaztelaniaz, portugesezko Wikipediako *energia* kontzeptuaren definizioa, *Energia Network* erakundearen ingelesezko gunea eta Energia jaurtigailu sobietarrari buruzko informazioa ingelesez.

Yahoo, *Alexa* edo beste bilatzailearen bat aukeratuta, antzeko emaitzak lortuko dituzu. Egin ezazu proba gogoko baduzu!

Kontua da zuk energiari buruzko lan bat egin nahi duzula. Horretarako informazioa bilatzen ari zara, eta, gainera, itzultzen ibili behar ez izateko, euskarazkoa gurago duzu.

Emaitzen orrialdeak arakutzen hasi zara. Dozena erdi bat pasatu dituzu honezkerok, eta euskarazko emaitzen arrastorik ez. Ingelesezkoak, gaztelaniazkoak, portugesezkoak, katalanezkoak... ikusi dituzu, aitzitik. Zer egin? Orrialdeak pasatzen segitu? Tumatxa, hi! Horrelako lantegirik ez diat hartuko!



Eureka! Googlek ez al du, bada, bilaketa-hizkuntza aukeratzeko sistema bat? *Bilaketa aurreratu*a botoian sakatu duzu. *Erakutsi hizkuntza honetako orriak* aukera ikusi duzu, eta, ondoan, lauki batean, *edozein hizkuntza* ageri da. Euskara hautatzerik egongo al da? Zabaldu aukera-zerrenda! Alemana, Euskararen arrastorik ez. Etsita, gaztelania aukeratu duzu. Wikipediako sarrera bigarren emaitza. Klik egin eta zeure burua itzultzaile bihurtzeko presatzen hasi zara.

Ring-ring! Segapotoaren hotsa. Zure lagun hurkoaren mezua, "bgira au www.elebila.eu". Zer ote? Helbidea tekleatu duzu. Orri garbi bat agertu zaizu, lauki bat erdi-erdian. ELEBILA euskarazko bilatzailea dio horren gainaldean. *Energia* pikatu duzu laukian eta *return* tekla ostean. Bilaketaren emaitzak ari zaizkizu pantailan agertzen. Harri eta zur gelditu zara. Emaitza guztiak euskarazkoak dira! Lehenengo, gainera, Wikipediako *energia* sarrera. Hasperen egin duzu, zure burua salbatuta ikusi duzu eta. ☑